



ESTIMULAZIO GOIZTIARRA LANTZEKO MASAJEAK IKASTETXEETAN ERE

Haur Hezkuntzako heziketan Glenn Domanen orientazioei jarraituz, **estimulazio goiztiarra** lantzea garrantzitsua da. Haurrak duen garapen gaitasuna topera potentziaz. Haurren garapen integrala hobetzeko asmotan, **SHANTALA MASAJEAK** dakartzan onuren aldeko apostua egin behar da.

Santa Teresa Ikastetxetik zuen hurrei Shantala masajea egiteko teknikak landuko ditugun ikastaro batean parte-hartzeko aukera eman nahi dizuegu. **0 eta 12 hilabete bitarteko haurrak** badituzue, datorren **azaroak 26an Lasarteko Kultur Etxean** antolatu dugun ikastarora gonbidatzen zaituztegu. **DOHANIK.**

Izena emateko: **943. 211. 764 - 620. 761. 809**

Epea: **Azaroaren 22a arte**

Zer da Shantala masajea?

Shantala masajea Indiatik datorren antzinako masaje tradizional teknika bat da. Honen bitartez, guraso eta haurraren arteko lotura afektiboak estutuko ditugu eta haurraren garapen sentsomotorren garapenari lagunduko diogu.

Zein dira haur-masaje honen onurak?

- Segurtasuna eskaintzen dio: kontaktu fisikoak segurua eta baloratua sentitzea lortzen du, bereganako konfiantza eta autoestimua garatuz.
- Hazkuntza fisikoa ekartzen du: haurrak bere gorputzaren ezagutza izatea sustatzen du. Giharrak indartu eta tonifikatzen ditu eta era orekatuan hazitzea baimentzen du, zirkulazioa aktibatuz. Nerbio-sistema eta sistema immunitarioa (defentsak) ere garatzen laguntzen du.
- Ongizatea ekartzen du: Mina arindu eta erlaxazioa lortzen laguntzen du, baita loaldiak sakonagoak izatea ere. Digestioa hobetu, haizeak kanporatzen lagundu eta idorreria saihestu.
- Gurasoei: Guraso eta haurren arteko lotura hobetzen du, haurrak komunikatu nahi duena hobeto ulertzen laguntzen du, elkarganako errespetua sendotzen du, gurasoen estresa murrizten du...

Irene Navarro irakasleak, ikastaroa emango du. Badago aukera elkarrizketak edo erreportaiak egiteko. Eskaearak:

komunikazioa@donostia.teresiareskola.com

650.95.38.38